

» TELEGRAMA

Azaroaren 13an hasi zen Bilboko **Zinebi** nazioarteko zinema jaialdia. Hilaren 20an amaituko da *STOP* Leioan eskainiko dute **Huts teatroaren** antzezlan berria, *Etxekoak*, azaroaren 20an *STOP L'Hereu Escampa* emo-punk talde kataluniarra Donostiako Dabadaba aretotik pasako da azaroaren 22an *STOP Getxoko Komiki Azokaren XIV. edizioa* hemen da: azaroaren 20tik 22ra bitartean, komikiak erosteko aukeraz gain hainbat ekitaldi eta tailer *STOP*

» DISKOA

Ñabardurak



Montse Auzmendi

Tolosako 47. Abesbatza Lehiaketa

Lekua: Tolosako Leidor Antzokia.

Datak: urriaren 29, 30 eta 31, eta azaroaren 1a.

Loïc Pierrek zuzendutako
Mikrokosmos abesbatza frantziarra.



Abesbatza-musika delikatu eta konplikatua da. Taldeen arteko desberdintasunak batzuetan ez dira begi bistakoak. Ñabardurak dira diferentzia markatzen duten elementuak, eta hain detaile zorrotzetan zaila da adituak ados jartzea.

Tolosan disfrutatu genuen 47. Abesbatza Lehiaketatik atera dezakegu aipatutako ondorioa. Ondo ikusten nuen, eta justua, epaimahaiaren erabakia, baina nire erabakia beste bat izango zen, dudarik gabe. Mikrokosmos talde frantziarra ia sari guztiak lortu zituen, mehezimendu guztiakin. Talde sendoa da, primerako ahotsak ditu, batez ere gizonetakoak, eta Loïc Pierre zuzendari aparta da. Musikaltasun osoz eraman zuen bere taldea eta, ondorioz, interpretazio

dotore eta doiak atera ziren. Baina ez nintzen talde horrekin maitemindu, ez zitzaidan gehiegi iritsi. Gauza bera gertatu zitzaidan ia abesbatza guztiakin, bat kenduta: Letoniako Emil Darzins Chamber Choir. Agian ez zen hain perfektua teknikoki, baina abesti baten interpretazioa nahikoa izan zen niretzat sarritu izateko. Kanta horregatik jaso zuten aipamen bat, euskal obra baten interpretazio onenaren saria. Ez zen nahikoa izan, nire ikuspuntutik. Xabier Sarasolaren Maiteagoak obrarekin egin zuten interpretazio zoragarrian ikusi egin genuen talde honen eta besteen arteko desberdintasuna. Folklore modalitatean derrigorrezko abestia zen, eta, beraz, talde guztiak abestu ondoren, aukera eman zigun kalitateak neurtzeko. Letoniarren bertsioa oso gaineratik geratu zen. Pena, aipatutako saria jasotako bakarra izatea.

Sari dezente irabazi zuen, aldiz, Japoniako Sugunami Gakuin Higu School and Kikuka Ensemble taldeak. Oso efektista baina, nire ikuspuntutik ez hain artista.

Talde zoragarria suertatu zen Kataluniako Cor amics de la unió abesbatza, haur abesbatzen modalitatean irabazlea, eta zorte gutxi izan zuen AEBetako CWU Chamber Choir taldeak. Abesbatza ona izan arren, ez zuen aipamenik jaso. Ulertu behar da hango estiloak eta eskolak ez dutela zerikusirik Europako tradizioarekin, baina haien freskotasuna eta dinamismoa preziatu beharko genituzke. ■